# Bestelako Xedapenak

## OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

### 2970

275/2009 DEKRETUA, maiatzaren 19koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzen dituena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoaren estatutu sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuko 8.2 artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkotza egiten duten bost kidek osatzen dute erakunde horretako Administrazio Kontseilua, lehendakariaz gainera. Jaurlaritzak izendatu beharko ditu kide horiek, alegia: bi kide Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez eta gainontzeko hirurak Osasun eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez.

Horri jarraituz, erakunde horretako Administrazio Kontseiluko azken kideak 270/1997, 102/1999, 324/1999 eta 305/2001, 284/2002 eta 214/2007 dekretuen bidez izendatu eta ordezkatu ziren.

Sail bietako zenbait kargutan aldaketak egin direnez, beharrezkoa da berriro ere Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzea.

Ondorioz, Osasun eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 19an egindako bileran, eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– 1.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko Administrazio Kontseiluan kide hauek kargua utz dezatela, eta, bide batez, egindako zerbitzuengatik eskerrak ematea:

– Lehenengo titularra, Osasun Sailak proposatutakoa: Rafael Cerdán Arandia jauna, Osasun sailburuordea.

– Bigarren titularra, Osasun Sailak proposatutakoa: Jon Lezertua Rodríguez jauna, Osasun Saileko Garapen eta Lankidetza Sanitarioko sailburuordea.

2.– Osasun eta Kontsumoko sailburuak proposatuta, Administrazio Kontseiluko kide honako hau izendatzea:

– Lehenengo titularra, Jesús María Fernández Díaz jauna, Osasun eta Kontsumo Saileko sailburuordea.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

### 2970

DECRETO 275/2009, de 19 de mayo, por el que se renueva parcialmente la composición nominal del Consejo de Administración del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El artículo 8.2 de los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, aprobados por el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, establece que el Consejo de Administración estará compuesto, además de por el Presidente, por cinco miembros en representación de la Comunidad Autónoma, que serán nombrados por el Gobierno, dos de ellos a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda y los tres restantes a propuesta del Consejero de Sanidad y Consumo.

De acuerdo con estas previsiones, los anteriores nombramientos y renovaciones de los miembros del Consejo de Administración del Ente Público se produjeron mediante los Decretos 270/1997, 102/1999, 324/1999 y 305/2001, 284/2002 y 214/2007.

Nuevamente, como consecuencia de los cambios producidos en los cargos directivos de ambos Departamentos, es preciso volver a renovar parcialmente la composición nominal del Consejo de Administración.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad y Consumo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de mayo de 2009,

DISPONGO:

***Artículo único.***– 1.– Cesar a los siguientes miembros del Consejo de Administración del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud, agradeciéndoles los servicios prestados:

– Primer titular de los propuestos por el Departamento de Sanidad, D. Rafael Cerdán Arandia, Viceconsejero de Sanidad del Departamento de Sanidad.

– Segundo titular de los propuestos por el Departamento de Sanidad, D. Jon Lezertua Rodríguez, Viceconsejero de Desarrollo y Cooperación Sanitaria del Departamento de Sanidad.

2.– Nombrar, a propuesta del Consejero de Sanidad y Consumo, al siguiente miembro del Consejo de Administración:

– Primer titular D. Jesús María Fernández Díaz, Viceconsejero de Sanidad del Departamento de Sanidad y Consumo.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko maiatzaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Osasun eta Kontsumo sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gastéiz, a 19 de mayo de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.